

1. JARDUERA

Ondorengo bi tauletan gaiaren Helburu Orokorrak eta Oinarrizko Gaitasunak zerrendatzen dira. Konpara itzazu zerrenda biak, aztertzeke nola islatzen diren Gaitasunak Gaiaren Helburuetan.

HELBURU OROKORRAK

1. Norberaren premietatik eta taldearen premietatik sortu eta baliabide teknologikoak erabiliz konpon daitezkeen arazoak hautematea; arazo horiek argi eta zehatz definitzea, eta, azkenik, arazook konpontzeko, hainbat iturritan dagoen informazioa bilatu eta aztertzea.
2. Eremu teknologikoko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, alderdi hauei buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko: beste konponbide batzuk asmatzeko, objektu eta sistema horiek nola funtzionatzen duten ulertzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko modurik onena zein den ikusteko eta zergatik erabiltzen diren, zergatik egin ziren eta zein propietate dituzten jakiteko.
3. Gai edo problema tekniko bati erantzungo dioten konponbideak diseinatzea, eta, horretarako, funtzionamendua irudikatzea, informazio-iturri egokiak erabiltzea, inplementazio-prozesuaren plangintza egitea; errespetuz, elkarrizketaren aldeko jarreraz, elkartasunez eta arduraz jokatzeko talde-lanean; eta, horrez gainera, norberaren ekimena, erabakiak hartzeko ardura, jarrera kritikoa eta norberaren buruarenganako konfiantza lantzea, espiritu ekintzailea garatzeko oinarria baitira; hau da, eknologia-aurrerapenerako oinarrizko alderdiak baitira.
4. Diseinatutakoa taldean gauzatzea, segurtasun- eta ergonomia-arauak errespetatuz baliabideak eta tresnak erabiltzean, gai edo problema tekniko bat garatzeko edo ondo ebazteko, eta, horrela, ikaslearen jakinduria teknologikoa handitzea, ezaguera zientifikoak, matematikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenan erabiliz, eta autoestimua eta emozio-gaitasunak garatzea, prozesuan ateratzen diren emaitzekin elkarrekintzan aritzearen ondorioz.
5. Lortutako emaitza eta jarraitutako lan-prozesua ebaluatzea, esperientzia barneratzeko eta problema teknologikoa ebatzi dela ziurtatzeko. Horrez gainera, eskatutako baldintzak kontuan hartuta, zer kalitate eta funtzionamendu duen egiaztatzea, eta jarduerak berak natura- eta gizarte-ingurunean dituen ondorioak aztertzea.
6. Aurreikusitako edo egindako ebazpen teknikoak azaltzea, kanal eta tresna egokiak erabiliz. Horretarako, sinbologia eta lexiko egokiak eta, behar izanez gero, argudioak erabiliko dira, bai eta baliabide grafiko eta informatikoak ere, bideragarriak diren eta zenbateko garrantzia duten aztertzeke, bai eta konponbide horiei buruzko informazioa elkarri emateko ere.
7. Europa eta mundu osoa kontuan hartuta, Euskal Herriko lanbide eta baliabide teknologiko adierazgarrienak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea, bai lanbide eta baliabide historikoak, bai gaur egungoak ere, ekonomia-sektore guztietakoak, konponbide teknologikoez izan duten bilakaera historikoaren tokiko ikuspegia eta ikuspegi orokorra izateko eta garatzeko.

